ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko urtarrilaren 10a, asteazkena • 4 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Aiarako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrari eta jendaurrean jartzea, ingurumen azterlan estrategikoarekin batera

Aiarako Udalak, 2017ko abenduaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Aiarako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrari, eta jendaurrean jartzea plan orokor hori eta dagokion ingurumen azterlan estrategikoa.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru eta hirigintzarenak, 90.5. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, 21. artikuluan xedatzen dutena betez, jendaurrean jartzen dira bi agiriak berrogeita bost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Iragarkia argitaratuko da, halaber, iragarki taulan, udalaren web orrian (www.aiarakoudala.eus) eta El Correo egunkarian.

Epe horretan, interesdunek aukera izango dute espedienteak aztertzeko Aiarako udaletxeko idazkaritzan, jendea atenditzeko ordutegian, eta udalaren web orrian (www.aiarakoudala.eus) edo esteka honetan: https://sites.google.com/view/pgouaiara) eta, alkateari zuzendutako idazki baten bidez, egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Plana idatzi duen taldeak aurrez aurreko atentzioa emango du 2018ko urtarrilaren 19an eta 2018ko otsailaren 2an, bi egunetan 9:00etatik 15:00etara, eta 2018ko otsailaren 15ean eta 2018ko martxoaren 1ean, bi egunetan 16:00etatik 20:00etara.

Interesdunek hitzordua eska dezakete aurrez, 945 399013 telefonora deituta.

Bat etorriz ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 85.3. artikuluan jasotakoarekin, era guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etenda geratzen dira bi urteko eperako, gehienez, xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza araubidea aldatzea dakarten esparruetan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2017ko abenduaren 21a

Alkate lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.01.10 06:33:57 Z